

Bergaran, 2021eko irailaren 12an.

Maitea,

Duela hiru urte ukitu, besarkatu eta musukatu zintudan lehenengo aldiz. Geroztik nire bizitza guztiz aldatu da, ni neu ere bestelakoa naiz, eta gainontzekoa beste maila batean gelditu da, bai, abandonatuta edo, agian, “standby” egoeran. Ni neu barne.

Gaur egun haurrekin emozioak lantzea garrantzitsua omen da. Emozioak. Zurrunbiloa, nahasmena eta amaieran, argia. Bakoitza bere emozioak identifikatzeko gai izatea da helburu. Askotan helduok lortzen ez duguna eskatzen dizuegu zuoi, umeoi. Perfekzioa ukitu nahian edo gure frustrazioak aldendu nahian... auskalo!

Bada, emozioak koloreekin erlazionatzen dira: haserrea gorriarekin adierazten da; poza, horiarekin; beldurra, beltzarekin, eta abar. Duela egun batzuk, hari horretatik tiraka hasi zinela, zera galdetu zenidan: “Amatxo, zu noiz sentitzen zara hori kolorekoa?”. Atzetik etorri ziren gainerako koloreei zegokien galdera zerrenda ere. Eta azkenengoa: ea larrosa kolorekoa noiz sentitzen nintzen. Maiteminari larrosa kolorea egokitu zaio. Galdera ona. Noiz sentitu naiz azken aldiz maiteminduta? Erantzuna baneki... Momentu hartan, zera erantzun nizun: “Zurekin nagoenean sentitzen naiz maiteminduta”. Hala ere, esan beharra daukat, hitz asko airean gelditu zirela, erdizka azaldu banizu bezala, eta horregatik erabaki dut gutun hau idaztea.

Nola azaldu zu jaio zinen momentuan nire bizitza hankaz gora gelditu zela eta ordura arte ezagutzen ere ez nituen sentimenduak azaleratu zitzaizkidala? Nola azaldu poza, maitemina, zirrara, euforia eta, aldi berean, beldurra, nekea, ezintasuna, etsipena eta panikoa?

Ikastetxeko liburuan bezala, neuk ere koloretako munstroa dirudit. Nahasmena, korapiloa eta aldi berean, argia. Bai, argia. Bizipen zoro honetan argi izpiak ere badaudelako, eta, noski, zoragarriak direlako. Jaio zinen unean, nire lehentasunak zeharo aldatu ziren. Neure burua albo batera utzi eta zu jarri zintudan aurrealdean, bat-batean. Horretara ohitu gabe nengoen, neurekoi samarra izan bainaiz beti, eta geroztik, borroka ugari izan ditut neure buruarekin. Ordenaren garrantzia, lehentasunarena, izatearena...

Jasan ditzadala nik kalte guztiak zure ordeztu! Naturaren legea, arrazionala eta irrazionalaren mugan, berriari lekua utzi, gazteari, indartsuari eta hobekien egokitzen denari.

Ziurrenik eskutitz bat ez da albiste mota hau emateko modurik egokiena, baina laster anaiatxo bat izango duzu. Eta berriz ere, burua bueltaka daukat. Emozioak bikoizten al dira?, zatitzen?, batzen? Zurrunbiloa gehiago kiribiltzen ote da edo argi izpiak egun argi bilaka daitezke?

Berresten dut: zurekin nagoenean sentitzen naiz maiteminduta.

Badirudi denbora tarte luze batean koloretako munstroa izaten jarraituko dudala, emozioekin dantzan.

Gauero diotsudan bezala, asko, asko maite zaitut.

Amatxo.